

Javier Linazisoro Lazpiur

*Bergara,
Gipuzkoa (1927)*

Aurkibidea

Biografia



Barrenkalean jaioa. Gerra aurreko urteetan Bergaran egon zen lehenengo Ikastola, Batza, eta hango ikasle izan zen. Euskaltzale amorratua, euskalkien defendatzaile sutsua da. Ehizarako zaletasuna ere izugarria du, eta azalpen interesgarriak ematen ditu gai horren inguruan.

Zintak

BER-160

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Bergara.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar

- **Data:** 2004-03-24
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

BER-163

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Bergara.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2004-04-22
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar

Pasarteak

1. Jatorria

- **Erref:** BER-160/003
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:01:38. **Bukatu:** 00:04:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

<p>Biografia zehatza. Amaren gurasoak, Joxe Laspiur eta Zezili Elkor; aitaren gurasoak, Juan Linazisoro eta Juana Areta (Zumaiakoak). Aita izatez Zumaiakoa zen. Argentinatik itzuli eta emaztea ezagutu zuen Bergaran; bertan geratu zen bizi izaten. Bergarako abertzale zaharrenetakoa. Abertzaleak; sozialistak.</p>

Transkripzioa

- Familixao kontuak zure biografia zentratzeko. Aitta ta aman izenak.
 - Gure aitta ta ama bakarrik ez, aitta-amagandik hasiko naiz, errezauea, hola arbolia puskatxo bat luzetxuo joateko.
 - Oso ondo, bota.
 - Bergarako aman aldeko aiton-amonak zien Joxe Lazpiur eta Xixili Elkor. Eta aittan aldeko aiton-amonak zien Juan Linazisoro eta bere emaztia Juana Areta. Osea, JoanYjoana esaten zotsen Zumaixan, zumaixarrak. Eta gure aitta zan zumaixarra. Eta haura etorri zan hona, ezautu zeban gure ama itxuria Argentinatik bueltan da harrezkero Bergaran. Ta hasi zan hemen-ta bere zerekin, bere gauzakin, lehengo abertzale zarretakua. Bai, hemen Bergaran behintzet abertzale zaharrenetakuak. Lehenengo ein zien abertzale zarrenetakuak. Abertzaliak nik esaten jat "nacionalistas", zegatik abertzalia izan leike aberrixa gustatzen jakon dana; bai sozialistak eta bai beste danak. Zegatik Eibarren be sozialistak asko izan arren abertzaliak die horrek. Horrek die... Bestela esaiezu harei, kenduiezu harei Arrate. Oin, joango balie zerera, Villamayor de los Montesera bai, baiña Eibarren ez, e. Eibarreko sozialismua diferentia da. Nik lagun asko dauzkat sozialistak, nahiz eta geu izan danok jatorriz eta bizi guztian abertzaliak. Oin, lehenguak e; oinguekin, bo!, ez daukat gehixegi fixatzeik. Iñokin be, politikamente. Iñokin bez, iñokin bez. Hemen bat zeon, geurian lanian ibilittako bat, Iraburuko Joxe. Iraburu da Iruburu, eta beste batzuk Iriburu.

Neretako izango zan orduan Iriburu. Zegatik herrixan gaiñian zeona, zegatik hortxe elizian gaiñian daon basarri bat da hori, eta haura izengo zan hiriburua. Zegatik orduan herrixa txikixa zan ba. Eta haura izango zan hiriburua. Eta horko basarriko batek esaten zeban, erderaz gutxi eitten zeban-eta: "Yo haser lo mío, estar conforme", "Yo haser lo mío, estar conforme". Mientras no te metas con nadie, iñokin sartu barik eta, "Yo haser lo mío, estar conforme".

2. Argentinara lanera

- **Erref:** BER-160/004
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:04:16. **Bukatu:** 00:06:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Lana diasporan » Bestelako lanak diasporan
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Diaspora » Disporara bidaia » Diasporara bidaia

Laburpena:

<p>Aita 16 urterekin Argentinara joan zen lan egitera. Enpresa bateko kontabilitatea eraman zuen bertan. 7-8 urte inguru egin zituen kanpoan.</p>

Transkripzioa

- Horrek zien gure lehengo jatorrizkuak. Ta gero gu ba oin geu jatorrizkuak honek danondako.

- Argentinatik bueltan esaten dozunian?

- Aitta etorri zan. Aitta Argentinan egon zan. Baiña joan zan, berak esaten zebanez, hamasei urtekin hartu maletatxo bat eta jun zan Argentinara.

Argentinan ein zittuan ba sei bat, zazpi bat urte, zortzi edo eingo zittuan.

Ordurako haura zan ba hola kontabilidadia-ta eruaten hasi zan hango Argentinako enpresa, almazen haundin batian, almazen bat. Eta gero ba berak harrapatzen zittuan txanpon guztiak han terrenuak erosten zittuan, eta hona etorri zanian ba gure ama ezautu eta ezkondu zien eta segiduan ba umiak eta umiak eta umiak. Orduan ez zeon beste zerik. Eta beti, seguru e, horrek "títulos de propiedad", eta honekin zera, berriz hara joan ta saldu edo zeoze eitteko-ta. Gerra ostian akordau zienerako haura dana konstruiduta zeon. Buenos Airesko han salidan ei zeren horrek terreno horrek, haura dana konstruiduta. Klaro, hari espropiaziñua eingo zotsen-ta. "Aquí no aparece dueño? Mío", zerak, aiuntamentuak. Se acabó. Han geratu zien harek.

- Eta hamasei-hamazazpi urtekin joan zan?

- Bera bakarrik. Hogeta hiru egun barkuan.

- Ze urte ingurutan?

- Ba haura juango zan ba, klaro, kontua etaraizu, haura jaio zan mil ochocientos noventa y nueve, uste dot jaio zala. Gure aitta ta ama. Harek joan dan siglokuak zien. Bai. Mil ochocientos noventa y nueve eta bestia dos mil. Ba hortxe. (...).

- Gerra Europeia amaitu eta hor.

- Gerra ba akabau barik ondio; hemezortzixan akabau zan haura, gerria.

- Hamazazpi urtekin joan bazan bai.

- Hamazazpi... Bai, akabau barik joango zan haura. Hogeta hiru egun, seguru, barkuan be. Orduan, klaro, eskiatzera gu oiñez joaten giñan moduan, orduan barkuan be inddarrik edo ezpazeon "a remo"-edo juango zien-ta.

3. Bittor Sarasketa eskopetagina

- **Erref:** BER-160/005
- **Iraupena:** 0:04:27. **Hasi:** 00:06:38. **Bukatu:** 00:11:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Emaztearen aitajauna, Román Ibarra, ehiztari amorratua. Bittor Sarasketa zaharrarekin eta Alfonso XIII rekin joaten zen ehizara. Eibarko eskopetagin onenak Sarasketatarrak. Eskopetagintzaren beherakada. Ehizaren izatea.

Transkripzioa

-Gero ba halaxe, halaxe hasi zan gure zeroi, gure jatorrixoi. Honek, berriz, honen aittajuna, nere andrian aittajuna, bat zan egurrezko tornerua, egurretan tornero eitten zebana. Guk txikilleroiak eta orduan-ta, kalderoiak

eitten-ta aittajuna, harek aittajunak eitten egurrezko zerak eta. Bai, egurrezko zerak eitten zittuen, honek porrejenplo sillendako-ta, sillak honek daukan hau torneuau, honek danak eitten jittuen.

-Balustrak ez die honek?

-Balaustradas. (...) Honek danak egurrezkuak eitten zittuen honek. Eta zan ehiztari amorratua gaiñera. Harek ehizagaittik baitta lana be laga, ehiza bazegon haura aide. Eta horrek jutun zien ehizara Bittor Sarasketa zarra, fundadoria, e, ez beste tiradoria, ez. Tiradoria, Bitor, zan nere laguna. Haren aitta. Bittor, Eibarko Bittor Sarasketa zarra. Honen, nere andrian aittajuna Roman Ibarra, eta Alfonso Trece, hirurak kasan eitten zebeu. Eta honek joaten zien hara eta han landuan-ta joaten zien honek erregiak. Honek tiradoriak onak izan eta haura ba harek hemengo eskopetakin-ta; horrek hirurak joaten zien. Behin eta bi aldiz baiño gehixotan, e.

-Alfonso Trece zelan ba?

-Ba eskopetia gustatzen jakolako. Eta orduan eskopetak eta klaro ba, fabrikantia be Sarasketa fabrikantia ta. Lelengo eskopetak Eibarren-ta. Onenentxuenak orduan gaiñera Sarasketarrak zien. Gero harrezkero Eibarren be gauza asko ein dia, bueno. AIAk lelengoko superpuestua ein zebanian, "Aia Coral", bata normala eta bestia de lujo. Hor dauzkat nik, horrek be badauzkat nik.

-Erakutsi bihar dostazuz.

-Horrek ein zienian bai, baiña ordura arte jeneralmente superpuestak zien, Aia-i edo Agirre y Aranzabali fama gehixen emon zotsena. Baiña orduan zenbat..., paralelia zan hemen, paralelak, eta hori, berriz, Sarasketan moduko famaik iñok be ez dau euki. Hobiak izango zien batzuk, edo eskastxuauak, baiña famia Sarasketan modukoik mundialmente iñok be ez dau euki.

-Izen ona beti.

-Izena, izena, Vitor Sarasqueta izena eskopetia ipini ezkeru haura zan garantia de buena escopeta. Oin dare beste batzuk, gauzak beste modu batera ein be eitten die, mekanizau be gehixao eitten da. Lehen eskuz eiten zana oin mekanizauta ta. Oin dare, porejenplo beste Arrieta Elgoibarren, nere laguna da, neure soldau-laguna gaiñera. Bai, alkarrekin itten dou urtero bazkai ba. Da horrek be eskopetak eitten, oso eskopeta fiña, ta oso karua, oso karua. Baiña ez dakigu ba ze izan leiken, ya eskopetak be puxkat bajau dia, zegatik honek batian italiar automatika, hurrengo semiautomatika ta. Ehiztarixak be puxkat bere izatia zaindu ein biharrian errebentau ein dau, zegatik lehen bi tiroko eskopetia zan el no va más. Lehenengo tiro bakarra. Tiro bakarrak be badauzkat nik, e. Eta ni tiro bakarrakin be ehizara jutun naiz. Baiña bi tirokuak zien, joño!, haura zan "paralela", bueno! Gero superpuesta. Gero hasi zien honek automaticas, bost tirokuok, eta mundu guztia bost tirokua. Eskupeta puxkat arintxuaua be bada ibiltzeko orduak berakin mendixan, baiña horretaz aparte tiro gehixao. Hiru tirokin autorizauta dare-ta. Pan-pan-pan! Eta bestiak bi tiro die, pun-pun! Eta ez dakit nik zegatik, baiña ehiztarixak hamarretik, gaur, zazpi bat bai behintzat, danak automatikuakin jutun dia. Eta neri hori etxat ikusteik be gustatzen. Badaukat nik bat, baiña hor dao behian kastigauta, azpi-azpixon, azpi-azpixon. Horrekin astakeri bat ein nebalako, behin eper bandada bat erten, bost tiro autorizauta zerenian, eta pan-pin-pan-pan-pan, bost tiro eta bost eper bota nittuan. Eta hau ez dok kasan eittia, hau dok "matar". Hori ez dok kasan eittia. Ta eskopeta hori ez da..., beste eskopeta eskuz einddako eskopetia, hori da eskopetia.

4. Ehiza kontuak

- **Erref:** BER-160/006
- **Iraupena:** 0:05:15. **Hasi:** 00:11:05. **Bukatu:** 00:16:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Ehizaren / ehiztariaren izatea.

Transkripzioa

- Hori da eskopetia, eskopetia hori da.
- Orduan zuretako ze da kazan eittia?
- Kazan eittia da behin hiru bat eper edo, nahi bozu ipini lau, lau bat eper botatakuan, zortzirak badie edo bederlatziak badie hartu eta automobilera, hamarretakua ein eta etxera. Zegatik berrogei bota arte hantxe ibili eta hurrengo astian fan da "ez, etxak eperrik" "A, ez?" Klaro, danak akabau ezker zela eongo dittuk ba? Ez, eperretia ta ehiza dana puxkat zainddu ein biha da, zainddu ein biha da. Ni neu be lehenau nitzan gaztetan matador, e. Bueno!, hoixe matador. Orduan gaztia ta ta dinbi tta danba. Baita eulixei be tiratu; gu, gaiñera, tirua edozer gauzai. Eta oin, berriz, ia urte asko da, daroiat nik. Es más, usotan eittia be etxat gustazen neuri. Etxat gustatzen usotan eittia zegatik hori ez dot konsideratzen kazia.
- Ze ba?
- Ta ointxe ni nagon moduan jarritta egon, hamarretakua ein ta tragua ein ta, jan ta eran ta "paloma!", hori esandakuan hartu eskopetia ta pin-pon!, tirua ein. Hori da "fusilamiento", hori da "fusilar". Francok eitten zebana ixa akabau arte, fusilau harrapautako danak. Hori be hoixe da. Ehiza da, txakurrakin nahi bada edo txakur barik nahi bada, mendira joan, mendixan ibilladixa ein, bi ordukua, laukua, seikua edo hamarrekua, zeuk ahal dozuna. Ibili mendixan-ta, txakurrakin-ta asko polittaua, gaiñera. Haura arrastua dala ta, ze eitten daben-ta, ze ez daben eitten-ta. Ene, han bajoiak eta, han jak, arrastua jaukak eta, haren ondorian. Txakurra ondorian joan eta haura geratzen danian da, joño, orduantxe harro, "ba, hemen jak ba". Piezia, oillagorra bazan oillagorra zan, eperra bazan eperra zan, ta. Pau!, tirua ta. Bueno. Hori da kazia. Baiña ibilixaz mendixan. Ez jarri tta egon ta, halako tripazar haundi batekin, beste bi litroko botia albuana-ta, tiki-taka. Hori ez da kazia. Hori da "tiro al blanco". Ta hortarako haizezko karabinak be fabrikatzeittue Eibarren, eta hola papelak be badare blankokuak, eta haretxei pi-pi-pi tiro batzuk ein eta "ya vale, ya está". Aprobazia nahi bozu ze tiradore klase zan. Tiratu harekin. Baiña han datorren hegatzixai ez. Hari, haura, e... Oin, usua porrejenplo ba diferentia izango litzake; hor Extremaduran-ta geratu eitten dau usua. Usua da migratoria, eitten dau pasa ta kontrapasa gero. Eta, porejenplo, ingo balitz kazan hara joan, hor be badare bat "El Alamín", koto bat, haura zaintzen dabe eren zinbelekin-ta. Nere anaiak, bi anai hara jutun zien. Pagau pagau biha zana eta joan hara ta "ze bota dozue?" ta "Gaur ehun ta berrogeta hamar bota juau" "Abai, e? Zela ba" ta. Jarri hementxe holaxe, nik esan dotena ta, han beste hiru (...) zinbelakin ta harek ekartzen; harek ekarri tta, arbolan geratutakua igual. Pu! hari. Tiratik blankora, gizona, haizezko karabiniakin. Baiña diferentia izango litzake porrejenplo hori beroi "El Alamín" izengo balitz "cazar en mano" esaten dana. Usotia. Usua be tiro gaitza da izan, oso rapidua da haura. Baiña hortako biha da taka-taka joan da arbolatik, han urten dok, eta hari tiratu edo diferentia da ez e, plo! plo,

hemen datorrenai tiratzia. Oso diferentia. Ehiza da ehiza eta bestia da ezebez. Bestia da txanpon batzuk gastau eta nahi dana ein.

- Esan dozu bata dauala erakartzen edo.

- Bai, zinbelakin.

- Ze da hori?

- Usuak, usuak. Hori eitteko gaiñera lehen astakerixia eitten zebeu, orratzakin itxutu eitten zebeu usuak, eta usuak ipintzen zittuen hola zinbel bat plataforma baten lotuta, eta plataformiai eitten zotsen soka batekin, han porejenplo usuak hegaran zetoze, pla!, hola eitten zotsen eta honek eitten zeban jausteko moduan, ez zeban ba ikusten-ta, pa-papa!, papapa!, eta hori eitten zebanian, beste usuak, ene!, hor jak eta. Puuu!, hara joaten zien-ta, hari orduan, po!, tirua. Hori da kaza subterranea.

- Orduan zuretako badare kategorixak-edo.

- Bai, bai. Nik mutikotan esan dotena lehen, nik neuk be eulixei be tiratzen notsan lehen. Eta usotara be juten nitzan, usotara be juten nitzan. Jarri hola puestuan-ta, usozain hantxe ta tiro ta. Baiña hori ez da kazia. Nik ixa ehun urte dauzkat baiña izango die berrogeta hamar bat urte edo hamaika bat urte edo usotara juten ez naizela. Ehizara bai, eperretara ta bai. Eperretara ta galeperretara be bai, eta oillagorretara. Gogua galanta baiña hemen, e, honek hankak (...) makalduta die oillagorretara juteko.

5. Ehizaren beherakada

- **Erref:** BER-160/007
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:16:20. **Bukatu:** 00:19:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

<p>Eperretan egitea ez da erraza. Azken aldian goraka doan ehiza mota; "caza sembrada". Hegaztien beherakadaren zergatia.</p>

Transkripzioa

- Baiña oin ya puxkat gabiz eperreta "un poco cómoda". Oin "caza sembrada" dago asko, ipiñi, botatzen dittue /botatzeittue/ hor eper batzuk, bota mendixan, esan: "bueno, hi, botaik dozena bat", segun zenbat lagun juten gan-edo, ta. Dozena bat edo bi bota eta aber, hortxe jarek, hortxe maldan bota jittuau. Eta txakurrakin kasan ein. Zegatik hori azkenian hoixe bakarrik geratuko da gaiñera Españan. Ez Euskadin, e, Españan, Euskadin eztago eperrik. Españan hoixe pasauko da. Euskadin bai oinddio badie herri batzuk, Riojan be bai banakan batzuk eta Araban be bai, baiña banakia. Eperra gastau ein da. Eta eperretan ehizan eittia nahi dabenak ez dau beste erreimeixoik eukiko "caza sembrada, caza controlada".

Kontrolautakua. Noberak esan: "Bueno hi, botaik sei edo botaik hamar edo botaik hoge. Eta haretxekin puxkat dibertidu, zegatik bestela hemen kazia eitteko kotua pagau ta jun bai, estafas absolutas hamarretik beratzi.

- Bai?

- Bai. Jun da ezebe ez dao, ezebe ez dao. Nik dauzkat lagunak jun da, ze in dok? eta ezebez, eta zer?, ta bat. Bat hartzera hara joan haiz? Seirehun kilometro eittuk hortako? Ba! Holaxe jarri da, holaxe jarri da, holaxe jarri da zegatik hori ez dau ehiztarixak akabau, hori gehixen-gehixen-gehixen ein dabena izan da fertilizantiak. Hor dare batzuk "elementos quelateos" eta

esaten dana, horrek die bonba atomikak, horrek etaratzen dittue ez lurretik baizik aretatik be etaratzen dabe kosetxia. Aretatik be bai, e. Hortxe dago Landetan, Landetan areia dao, haura dana areia da. Horrek etaratzen dittue Landetan hamahiru tonelada hektareako artuak. Eta hemen, bueno, zazpi tonelada etaratzia be zan una burrada. Baiña hori beste hori elemento horrek bota ezkeru, fertilizante horrek, horrek etaratzen dabe baiña horrek, bola txiki-txiki-txiki batzuk die, oso mikrokospikuak, zegatik horrek balio dau, kelatuak berak balio dau "fortunón". Kilo bat kelatokin igual ingo dabe bi milla kilo zera, fertilizantiak. Oso karua da hori. Baiña hori da dinamita. Hori porejenplo, sarrittan komentau izan dou agostuan galeperretara joanda: "Bai, eperra ikusten dok aurten, ikusten dok eperra". Bai, eperra ikusi bai, baiña juten za kazara oktubrian eperretara; eperrik ez, eperrik ez, eta ze pasau dok? Ba, txitak, txitak eta; hari lurrai buelta emoten jakonian botatzeittuen bolatxuak ti-ti-ti, eta danak hankaz gora. Horrek eta hurrengo horrek jateittuen belak be hankaz gora, eta aizerixak jaten badau haura be hankaz gora. Horrendako da txarra. Beste batzuk: "La caza hay que regular, porque la caza es la que..." No, no, la caza no ha matao ni ha hecho perder la caza. Gu ume-umetatik zenbat urtian ibilli ga bai oillagorretan eta bai eperretan, da eperra sekula ez zan gastatzen. Eperra beti egon da. Eperran ondorian ibilitta harek eztittu ehun eper botako. Oin, ojeuan bota ezkeru bai. Han ipiñi hemezortzi lagun bultzaka ta zu jarritta ta, dinbi ta danba. Hola bai. Baiña ehizan dabillanak ez dau ehizarik galdu. Keba.

6. Ehizaren inguruko kontuak

- **Erref:** BER-160/008
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:19:59. **Bukatu:** 00:21:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

<p>Ehiztariak gehienetan, naturazaleak. Eperra zeharo galduta.</p>

7. Ehizak izan dituen aldaketak

- **Erref:** BER-160/009
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:21:20. **Bukatu:** 00:24:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Natura » Fauna

Laburpena:

Oilagorretan egitea. Gaztea zenean ehiza babesleketan ehizatzeke ez zen dirurik ordaintzen; herriaren onurarako lanen bat egiten zen. Egun, ehiza oso garestia da.

8. Bergarako ehiztari zaharrak

- **Erref:** BER-160/010
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:24:30. **Bukatu:** 00:25:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Bergara aldeko ehiztari zaharrak. Gaztetan kamioi zahar handi batean mugitzen ziren ehizara.

9. Bittor Sarasketa eskopetagina

- **Erref:** BER-160/011
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:25:20. **Bukatu:** 00:27:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Bittor Sarasketa zaharra. Eskopetagin onak Eibarren. Ugartetxea; AYA; e.a. Guztietan ezagunena mundu osoan, Bittor Sarasketa.

10. Bittor Sarasketa eta ehiztari ezagunak

- **Erref:** BER-160/012
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:27:42. **Bukatu:** 00:30:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Bittor Sarasketa zaharra, Alfonso XII.a eta Javierren emaztearen aitajauna ehizara joaten ziren elkarrekin. Juan Carlos I Espainiako erregea ere ehiztari amorratua. Francoren ehiza kontuak.

11. Bittor Sarasketa eskopetagina

- **Erref:** BER-160/013
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:30:48. **Bukatu:** 00:34:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Grabatua

Laburpena:

Bittor Sarasketa zaharraren semea, Javierren oso lagun ona. Eskopeta zahar bati kañoi berriak ipini zizkion, bere firma eta guzti eskuz grabatuta. Grabatzaileak Sarasketanean.

12. Bittor Sarasketaren lantegia

- **Erref:** BER-160/014
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:34:48. **Bukatu:** 00:35:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Bittor Sarasketa lantegia zelakoa zen; nola gogoratzen duen. Txispaginak; grabadoreak; akabatzaileak; e.a.

13. Bergarako industria

- **Erref:** BER-160/015
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:35:40. **Bukatu:** 00:37:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Altzairugintza

Laburpena:

Begarako industria. Oihalgintza eta altzairua nagusi. Eskualdeko industria. Armagintzaren aurrekariak.

14. Ehiza kontuak

- **Erref:** BER-160/016
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:37:48. **Bukatu:** 00:41:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Gaztetan ehiza abuztuan hasten zen. Ehiza desberdinak. Ehiztariak, naturazaleak. Ehiztarien fama txarraren inguruan.

15. Bergarako herri antolaketa

- **Erref:** BER-160/018
- **Iraupena:** 0:04:48. **Hasi:** 00:42:27. **Bukatu:** 00:47:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:

Barrenkalean jaiotakoa. Umetan, oso auto gutxi. Umetako jolasak. Barrenkalea zelakoa zen. Artekalea; Goenkalea. Bidekurutzea; S. Pedro kalea. Hirigunea oso txikia. Soro, ortuak batez ere.

16. Ehizaren beherakada

- **Erref:** BER-160/019
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:47:15. **Bukatu:** 00:50:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Ehizan egiten zuten herri inguruan bertan. Basoak nola aldatu diren. Ehizaren beherakadaren zergatia.

17. Barrenkalea

- **Erref:** BER-160/020
- **Iraupena:** 0:06:25. **Hasi:** 00:50:15. **Bukatu:** 00:56:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Barrenkalea zelakoa zen. Abarkagilea. Arotzeria. Tabernak. Guarnizioneroa.

18. Sta. Marina eta S. Pedro elizak

- **Erref:** BER-160/021
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:56:40. **Bukatu:** 00:59:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Sta. Marina eta S. Pedroko elizak. Kale, auzoen banaketa.

19. Jauregiak

- **Erref:** BER-160/022
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:59:20. **Bukatu:** 01:02:15

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Bergarako jauregiak, dorretxeak, e.a.

20. Fonda La Estrella

- **Erref:** BER-163/002
- **Iraupena:** 0:04:25. **Hasi:** 00:02:45. **Bukatu:** 00:07:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » Jarrera politikoak » Emakumeak politikan

Laburpena:

Amaren amandreak, Fonda La Estrella izan zuen. Aita, batzokiko lehendakaria eta ama Emakumeen lehendakaria. Fondaren inguruko kontuak.

21. "Lazpiur y Linazisoro" zapata-lantegia

- **Erref:** BER-163/005
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:08:50. **Bukatu:** 00:10:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza

Laburpena:

Aitajaunak eta aitak zapata-lantegi bat ipini zuten martxan. Egoera txarrean zegoen Mendibil lantegia, eta beraiek hartu zuten. Lantegiak Gerra Zibilera arte iraun zuen, baina orduan Antzuolako Telleria jeneralak errequisatu egin zuen. Gerra ostean, guztiz txikituta zegoenean, berreskuratu ahal izan zuten.

22. Lazpiur y Linazisoro zapata lantegia

- **Erref:** BER-163/006
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:10:00. **Bukatu:** 00:11:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza

Laburpena:

Mendibil zapata lantegia zena, Lazpiur y Linazisoro bihurtu zen. Ekoizpena; katean lan egiten zen.

23. Bergarako industria: oihalgintza; zapatagintza

- **Erref:** BER-163/007

- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:11:25. **Bukatu:** 00:12:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza

Laburpena:

Bergarako industriak. Oihalgintzaren beherakada. Zapatagintza.

24. Zapatagintza; urratsak

- **Erref:** BER-163/009
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:14:20. **Bukatu:** 00:18:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Narrua heldu eta lehenengo pausoa, moztea izaten zen. Urrats desberdinak: kortadorak; montadorak; montajea; e.a.

25. Frontea Bergarara gerturatu ahala, familia Bilbora ihesi

- **Erref:** BER-163/010
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:18:10. **Bukatu:** 00:19:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

Frontea Bergarara gerturatzen ari zela, familia guztiak Bilbora egin zuen ihes. Abertzale guztiak irten ziren Bergaratik.

26. Abertzaleak, karlistak Bergaran

- **Erref:** BER-163/014
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:24:35. **Bukatu:** 00:26:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak
- Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa

Laburpena:

Abertzaletasuna ume-umetatik bizi izan du. Casino Republicano. Abertzaleak eta karlistak indar gehien zutenak.

27. Bergarako batzoki zaharra

- **Erref:** BER-163/015
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:26:30. **Bukatu:** 00:28:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak
- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak

Laburpena:

<p>Batzokia zelakoa zen. Jaialdiak. Falangeak rekisatu zuen gero batzokiaren lokala eta urtetan egon ziren bertan.</p>

28. Poxpoliñak; "Bai ederra dala aberri maitea..."

- **Erref:** BER-163/016
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:28:30. **Bukatu:** 00:30:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Aisia » Kultura » Dantza
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

<p>Poxpoliñak. "Bai ederra dala aberri maitea..." kanta abesten du.</p>

29. Abertzaletasuna gerra aurreko urteetan

- **Erref:** BER-163/017
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:30:30. **Bukatu:** 00:33:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

<p>Abertzaleen arteko giroa gerra aurrean. Abertzaletasuna lehen eta gaur. ANV; ANVkoek abesten zuten kanta zahar bat gogoratzen du.</p>

30. Emakume Abertzale Batza

- **Erref:** BER-163/018
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:33:15. **Bukatu:** 00:36:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » Jarrera politikoak » Emakumeak politikan

Laburpena:

Mitinak. Ama, Emakumeen lehendakaria. Batzoki zaharra zelakoa zen.

31. Bergarako batzoki zaharra; kanta abertzalea

- **Erref:** BER-163/019
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:36:30. **Bukatu:** 00:38:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bestelako katak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

<p>Batzokiaren inguruan biltzen ziren Bergarako abertzaleak. Eusko Ikastola Batza; antzerkiak... "Bai ederra dala aberri maitea..." kanta abertzalea kantatzen du.</p>

32. Bergarako lehenengo Ikastola

- **Erref:** BER-163/020
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:38:40. **Bukatu:** 00:39:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Ikastolaren inguruko kontuak. Irakaslea, Maria Ojanguren.

33. Bergarako lehenengo Ikastola

- **Erref:** BER-163/022
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:41:05. **Bukatu:** 00:44:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

<p>Maria Ojanguren irakaslea, gerra garaian Belgikara joandakoa. Eskolako kontuak. Xabiartxo liburua.</p>

34. Euskara batua

- **Erref:** BER-163/023
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:44:05. **Bukatu:** 00:47:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Ikastolan ikasitako euskara. Euskara batua; euskalkiak. Euskararen aberastasuna, euskalkietan dago.

35. Euskalkiak

- **Erref:** BER-163/026
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:51:00. **Bukatu:** 00:52:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Euskararen aberastasuna, euskalkietan dago.

36. Hika; zuka; berorika

- **Erref:** BER-163/028
- **Iraupena:** 0:04:25. **Hasi:** 00:54:20. **Bukatu:** 00:58:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Hika egiten noiz hasi ziren, zelan ikasi zuten. Emakumeen artean zuka erabiltzen zen batez ere. Berorika.</p>

37. Hika; zuka; berorika II

- **Erref:** BER-163/029
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:58:45. **Bukatu:** 01:02:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika

Laburpena:

<p>Berorika. Jauntxoak. Goiko kondea; Conde del Valle.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-05-31

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com